

Erabakien Bilduma

Euskararen Erakunde Publikoaren Administrazio Kontseilua 2010eko abenduaren 21ean bildu da, Max Brisson jaunaren lehendakaritza pean, Baionako Kontseilu Nagusiko Kaserna ttipian, 18:00etan.

**A] Bilkuran parte hartu dutenak :**

**Estatuaren izenean :**

- Laurent NUNEZ jauna, Baionako Suprefeta
- Jean-François SIBERS jauna, DRACeko Kontseilaria
- Marie-Pierre COHERE, Akademiako ikuskaria

**Akitania Eskualdearen izenean :**

- François MAITIA jauna, Akitania Eskualdeko Lehendakari-ordea, Lehendakariaren ordezkaria
- David GROSCLAUDE jauna, Eskualdeko Kontseilaria

**Euskal Herriko Hautetsien Kontseiluaren izenean :**

- Jakes ABEBERRY jauna, Lehendakariaren ordezkaria

**Pirinio-Atlantikoetako Departamenduaren izenean :**

- Max BRISSON jauna, Pirinio-Atlantikoetako Kontseilari Nagusia, Lehendakariaren ordezkaria
- Monique LARRAN-LANGE, Kontseilari Orokorra.

**Euskal kultura sustengatzen duen herrien arteko sindikatuaren izenean :**

- Jean-René ETCHEGARAY jauna, Lehendakaria

**B] Hor ziren baita ere :**

- Xavier NORTH jauna, Gobernamentuko Komisorioa ;
- Bernadette SOULE anderea, Euskararen Erakunde Publikoko zuzendaria
- Dominique PONTACQ jauna, EEPko kondularia

Relevé de décisions

Le Conseil d'Administration de l'Office Public de la Langue Basque s'est réuni le 21 décembre 2010 à 18h00, à la Petite Caserne, dans les locaux du Conseil général à Bayonne, sous la présidence de M. Max Brisson.

**A] Ont participé à la réunion :**

**Représentant l'Etat :**

- M. Laurent NUNEZ, Sous-Préfet de Bayonne
- M. Jean-François SIBERS, Conseiller DRAC
- Mme MP. COHERE, Inspectrice d'Académie

**Représentant la Région Aquitaine :**

- M. François MAITIA, Vice-Président du Conseil Régional représentant le Président
- M. David GROSCLAUDE, Conseiller Régional

**Représentant le Conseil des Elus du Pays Basque :**

- M. Jakes ABEBERRY, Délégué du Président

**Représentant le Département des Pyrénées-Atlantiques :**

- M. Max BRISSON, Conseiller général, représentant le Président
- Mme Monique LARRAN-LANGE, Conseillère Générale.

**Représentant le Syndicat Intercommunal pour le Soutien à la Culture Basque :**

- M. Jean-René ETCHEGARAY, Président

**B] Etaient également présents :**

- M. Xavier NORTH, Commissaire du Gouvernement ;
- Mme Bernadette SOULE, Directrice de l'Office Public de la Langue Basque
- M. Dominique PONTACQ, agent comptable

### **C] Administrazio kontseiluan zirenak :**

#### **EEPko zerbitzuetatik :**

- Mixel ESTEBAN, hizkuntza karguduna
- Jean Michel BARBIER, hizkuntza karguduna
- Mainer BERGOUIGNAN, hizkuntza karguduna
- Naroa GOROSTIAGA, hizkuntza karguduna
- Joana OYHARCABAL, hizkuntza karguduna

#### **Departamenduko zerbitzuetatik :**

- Charlotte GUILHARRETZE anderea, hizkuntza politikan misio karguduna

#### **Hautetsien Kontseilutik :**

- Battitta BOLOQUY jauna, Zuzendaria

### **C] Assistiaient également :**

#### **Pour les services de l'OPLB :**

- Mixel ESTEBAN, chargé de mission
- Jean Michel BARBIER, chargé de mission
- Mainer BERGOUIGNAN, chargée de mission
- Naroa GOROSTIAGA, chargée de mission
- Joana OYHARCABAL, chargée de mission

#### **Pour les services du Département :**

- Mme Charlotte GUILHARRETZE, chargée de mission politique linguistique

#### **Pour le Conseil des Elus :**

- M. Battitta BOLOQUY, Directeur

## BILKURAREN IREKITZEA

## OUVERTURE DE SEANCE

Lehendakariak aipagaiak oroitarazten ditu :

Le Président rappelle l'ordre du jour :

### **Bozkatu beharreko txostenak :**

- 1. EEPren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko lankidetzak**
  - 2011-2016 urteetako oinarrizko hitzarmenaren onartzea
  - 2011ko eranskinaren onartzea
- 2. Irakurketa publikoa**
  - Euskarazko euskarrien erosteko laguntza dispositiboa : araudiaren onartzea
  - Dispositiboari lotu aholkularitza funtzioa : EEP/Ikas hitzarmena
- 3. EEP/CAF/MSA/KO partaidetza, lehen haurtzaroaren harrera kolektiboari buruzkoa**
  - Labelizatze dispositibo esperimentalaren luzatzea
- 4. 2010-2011ko Ikastetxeei zuzendu proiektu deialdia**
  - Dirulaguntzen onartzea
- 5. EEP/Berria profesionalizatze hitzarmena**
- 6. EEP/Biga Bai profesionalizatze hitzarmena**
- 7. Ikas-en eta EEPren arteko partaidetza**
  - Dokumentalista-laguntzailearen lanpostuaren luzatzea
- 8. Euskal Herri Hegoaldeko Herri Elkargoaren euskara formakuntza plangintza**

### **Berri emateak :**

- Ikastetxeei zuzendu proiektu deialdia : 2009-2010 urteko bilana

### **Rapports soumis au vote :**

- 1. Coopération OPLB/Gouvernement de la Communauté Autonome d'Euskadi**
  - Adoption de la nouvelle convention cadre pour la période 2011-2016
  - Adoption de l'annexe 2011
- 2. Dispositif lecture publique**
  - Dispositif d'aide à l'achat de supports éditoriaux : vote règlement d'intervention
  - Fonction de conseil adossée au dispositif : convention OPLB/Ikas
- 3. Partenariat OPLB/CAF/MSA/CG en matière d'accueil collectif de la petite enfance**
  - Reconduction du dispositif expérimental de labellisation
- 4. Appel à projets 2010-2011 destiné aux établissements scolaires**
  - Adoption des décisions d'aides financières
- 5. Convention d'aide à la professionnalisation OPLB/Berria**
- 6. Convention d'aide à la professionnalisation OPLB/Biga Bai**
- 7. Partenariat OPLB/Ikas**
  - Prolongement du contrat de l'aide-documentaliste
- 8. Plan de formation linguistique Communauté de Communes Sud Pays Basque**

### **Informations diverses :**

- Appel à projets portés par les établissements scolaires : bilan de l'année 2009-2010

## **1. Euskal Autonomia Erkidegoarekiko partaidetza 2011-2016 Hitzarmen-Markoa eta 2011ko eranskina**

### **Testuingurua :**

2007ko otsailaren 07an, Euskararen Erakunde Publikoko Lehendakariak eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailburuak euskararen aldeko hizkuntza politika baten eremuan bi erakundeek garatu nahi zuten partaidetzaren kuadroa 2010. urtea arte finkatzen duen Hitzarmena izenpetu zuten.

Izenpetzaileek 2007-2010 epealdirako bilan baikorra egiten dute eta 2011-2016 epealdirako Hitzarmen-Markoaren berriz bideratzea aurreikusten, gisa horretan Eusko Jaurlaritzaren eta Euskararen Erakunde Publikoaren artean euskararen gaineko hizkuntza politikako gaietan mugaz gaindiko lankidetzaren garatzearen aldeko borondatea berretsiz eta erakunde mailako harreman iraunkorrek egonkortuz, herri-erakunde bakoitzaren erabaki-autonomia eta funtzionamendu-arauak errespetatuta.

Hitzarmen-Marko berri horrek, aurrekoak bezala, instituzioen arteko elkarlana zehazten du, urteko Eranskin baten bidez bideratuko dela jakina, indarrean jarriko diren jarduerak zerrendatzearekin.

2011. urterako, urteko hitzarmenak honakoak aurreikusten ditu :

- Helduen euskalduntze-alfabetatzearen esparruan, hizkuntza-gaitasunaren mugaz bi aldeetako egiaztagirien baliokidetzaren definitzea eta antolaketa
- Bi partaideen Jarraipen eta ebaluaketa adierazle komunen definitze eta antolaketa
- Eusko Jaurlaritzaren, EEPren eta EITBren arteko lankidetzaren
- V. inkesta soziolinguistikoaren prestaketa lanen abiatzea
- Iparraldeko eragile pribatuen lana diruz laguntzea
- Euskarazko argitalpenak Ipar Euskal Herriko Irakurketa Publikoko Sarean hedatzea diruz laguntzea

### **Erabakia :**

Hauek aztertu ondoren, Administrazio Kontseiluak Euskal Autonomia Erkidegoarekin aurreikusirik lankidetzaren ontzat jotzen du 2011-2016 epealdirako, baita ere 2011rako zehaztutako ekimenen programa ere, eta Lehendakariari baimena ematen dio Eusko Jaurlaritzako ordezkariaren batera 2011-2016erako Hitzarmen-Markoa (1. eranskina) eta 2011ko Eranskina (2. eranskina) izenpetzeko.

### **Aho batez onartua.**

## **1. Partenariat avec la Communauté Autonome d'Euskadi Convention-Cadre 2011-2016 et Annexe 2011**

### **Contexte :**

Le 07 Février 2007, le Président de l'Office Public de la Langue Basque et la Ministre de la Culture du Gouvernement Basque signaient une convention fixant jusqu'en 2010, le cadre de partenariat que les deux entités se proposaient de développer dans le domaine de la politique linguistique en faveur de la langue basque.

Les signataires dressent un bilan positif de la période 2007-2010 et prévoient de reconduire le partenariat pour la période 2011-2016, en réaffirmant la volonté du Gouvernement Basque et de l'Office Public de la Langue Basque de consolider et développer un partenariat transfrontalier en matière de politique linguistique concernant la langue basque, dans le respect de l'autonomie de décision et des règles de fonctionnement de chacun des organismes concernés.

Cette nouvelle Convention-Cadre prévoit comme la précédente les modalités de coopération entre institutions déclinées dans le cadre d'une Annexe annuelle venant préciser l'ensemble des activités opérationnelles.

Pour 2011, la convention annuelle de partenariat prévoit :

- Dans le domaine de l'apprentissage de la langue basque aux adultes, de définir et d'organiser des dispositifs d'équivalence des certifications de langue basque de part et d'autre de la frontière
- La mise en place d'indicateurs de suivi et d'évaluation communs aux deux partenaires
- Les modalités de collaboration entre le Gouvernement Basque, EITB et l'OPLB
- D'entamer les travaux de réalisation de la V<sup>ème</sup> enquête sociolinguistique
- Le soutien financier des opérateurs privés du Pays Basque de France
- Le soutien à la diffusion de la production éditoriale en langue basque dans le réseau de lecture publique du Pays Basque de France

### **Délibération :**

Après examen, le Conseil d'Administration approuve le partenariat prévu avec la Communauté Autonome d'Euskadi pour la période 2011-2016, ainsi que le programme d'activités détaillé dans le cadre de l'Annexe 2011, et autorise le Président à signer la Convention-Cadre 2011-2016 (annexe 1) et l'Annexe 2011 (annexe 2) avec les représentants du Gouvernement Basque.

### **Adopté à l'unanimité.**

## 2. Irakurketa publikoari buruzko dispositiboa

### Testuingurua :

Ipar Euskal Herrian euskarazko argitalpenen bultzatzeko helburuarekin, eta gisa berean irakurketa publikoko sarearen sostengatzeko, 2010/07/08ko EEPren Administrazio Kontseiluan erabakia izan zen 80 000 €ko fondo bat baztertuko zela, Eusko Jaurlaritzarekin adosturik, gisa honetan osatua :

- 60 000 € : Eusko Jaurlaritzak emana
- 20 000 € : EEPk emana

Fondo honen kudeaketa EEPren gain da zati handiengan. Hala ere, Hizkuntza Politikarako sailburuordetzak parte hartzen du urrats ezberdinetan : komunikazioa, erabakiak, ebaluaketa...

### Proiektuaren aurkezpena :

Fondo hori banatuko da EEPk plantan jarri dispositibo baten bidez : Euskarazko euskarrien erosteko laguntza dispositiboa.

#### • **Euskarazko euskarrien erosteko laguntza dispositiboa**

Irakurketa publikoko ekipamenduak, eskolak, eta liburu munduan ari den edozein eragilek, galdea eginez geroz, dirulaguntza bat izaten ahalko dute euskarazko euskarrien erosteko (euskarriak izan daitezke bai euskaraz sortuak, bai euskarara itzuliak). Laguntza hori irakurketa publiko ekipamenduaren tipologiaren arabera eta eskolen kasuan, euskarazko sailean diren haur kopuruaren arabera definitua izanen da molde finkoan.

Hautagarritasun baldintzak eta diru laguntza esleitzeko prozedura Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin adostuak izan dira eta araudi batean azalduak (3. eranskina).

#### • **Dispositiboari lotu aholkularitza funtzioa**

Dispositibo hori obratzearekin batean, aholkularitza funtzio bat antolatua izanen da diru laguntza izanen duten eragileek eskaintza ezagutu dezaten eta obrak behar bezala hauta ditzaten.

EEPk aholkularitza misio hori Ikas zentroari ematen dio. Horri buruz, 4. eranskineko hitzarmenak zehaztaperenak ematen ditu.

### Erabakia :

Administrazio Kontseiluak erabakitzen du :

- Euskarazko euskarrien erosteko laguntza dispositiboari buruzko araudia onartzea (3. eranskina) ;
- Aholkularitza funtzioari buruzko EEP/Ikas hitzarmena (4. eranskina) onartzea eta Lehandakariari baimena ematea honen izenpetzeko.

### **Aho batez onartua.**

## 2. Dispositif lecture publique

### Contexte :

Dans l'objectif de favoriser la diffusion en Pays Basque de France de la production éditoriale en langue basque, et soutenir le réseau de lecture publique, le Conseil d'Administration de l'OPLB du 08/07/2010, actait la création d'un fonds coopération particulier d'un montant total de 80 000 € :

- 60 000 € : Gouvernement basque
- 20 000 € : Office Public

La gestion du fonds de coopération particulier relève essentiellement de la responsabilité de l'OPLB, mais le Sous-Ministère de la Politique Linguistique est associé aux différentes étapes : la communication, les décisions, l'évaluation...

### Description du projet :

Ce fonds sera activé en 2011 par l'OPLB via un dispositif d'aide à l'achat de supports éditoriaux en langue basque.

#### • **Le dispositif d'aide à l'achat de supports éditoriaux en langue basque**

Les équipements de lecture publique, les écoles, et tout autre opérateur oeuvrant dans le monde du livre qui en feront la demande, pourront bénéficier d'une aide financière pour l'achat de supports éditoriaux créés ou traduits en langue basque. Cette aide sera définie forfaitairement en fonction de la typologie de l'équipement de lecture publique, et des effectifs inscrits en filières bilingues ou immersives s'agissant des écoles.

Les conditions d'éligibilité et les procédures d'attribution sont précisées dans le projet de règlement d'intervention joint en annexe 3, défini en concertation avec le Sous Ministère à la Politique linguistique.

#### • **La fonction de conseil et d'appui technique adossée au dispositif**

Parallèlement, une fonction de conseil et d'appui technique sera organisée en direction des opérateurs bénéficiant d'un soutien financier, afin de les informer de l'état de l'offre, ou de les accompagner dans le choix des ouvrages...

L'OPLB attribue à Ikas cette mission de conseil et d'appui technique. La convention jointe en annexe 4 précise ce partenariat.

### Délibération :

Le Conseil d'Administration décide :

- d'approuver le projet de règlement du dispositif d'aide à l'achat de supports éditoriaux en langue basque (annexe 3) ;
- d'approuver la convention OPLB/Ikas (annexe 4) concernant la fonction de conseil et d'autoriser le Président à la signer.

### **Adopté à l'unanimité.**

### **3. Euskarazko harrera proposatzen duten haurtzaindegien labelizatze dispositiboaren arraberritzea**

#### **Testuingurua :**

2009/11/16ean, Baionako CAFa, Pirineo-Atlantikoetako Kontselu Orokorra, Hego Akitaniako MSA et EEP biltzen dituen hitzarmen bat izenpetu zen, labelizatze dispositiboa abiaraziz, lehenik esperimentazio gisa, 2010/05/10a arte.

Dispositiboaren ebaluaketa egin ondoan, Labelen batzordeko kideek adostu dute dispositibo horren arraberritzeko nahia, eta abisua helarazi die lau partaideen atal erabakitzaileei.

#### **Proiektuaren aurkezpena :**

2010/11/29an, Labelen batzordea bildu da labelizatze dispositiboak behar dituen egokitzapenen finkatzeko. Egokitzapen horiek egin dira ebaluaketatik atera diren oharrak kontutan harturik, bai eta ere haurren harrera kolektiboa arautzen duen legediaren aldaketak errespetatuz eta azkenik, Cnaf-ak Baionako Caf-ari eginikako oharrak kontutan harturik (Cnaf-aren 2010/08/20ko gutuna).

Labelen batzordeak hitzarmen berri bat idatzi du labelizatze dispositibo hori berriztatzen duena.

#### **Erabakia :**

Elementu horiek kontutan harturik, Administrazio Kontseiluak erabakitzen du labelizatze dispositiboaren arraberritzeko hitzarmena onartzea (5. eranskina) eta Lehendakariari baimena ematea hitzarmenaren izenpetzeko.

**Aho batez onartua.**

### **3. Renouvellement du dispositif de labellisation des établissements d'accueil collectif de la petite enfance proposant un accueil en langue basque**

#### **Contexte :**

Le 16/11/2009, la convention réunissant la Caf de Bayonne, le Conseil Général des Pyrénées-Atlantiques, la MSA Sud Aquitaine et l'OPLB autour du dispositif de labellisation a été signée, à titre expérimental jusqu'au 10/05/2010.

Après une évaluation du dispositif, les membres du Comité des labels ont acté le souhait de pérenniser le dispositif de labellisation, et ont transmis cet avis aux instances décisionnaires des quatre partenaires.

#### **Description du projet :**

Le 29/11/2010, le Comité des labels s'est réuni afin de définir les adaptations nécessaires au renouvellement du dispositif de labellisation. Elles découlent des observations faites lors de l'exercice d'évaluation, des modifications de la réglementation régissant l'accueil collectif des jeunes enfants et des recommandations faites par la Cnaf à la Caf de Bayonne dans un courrier datant du 20/08/2010.

Le Comité des labels a travaillé à la rédaction d'un nouveau projet de convention en vue du renouvellement du dispositif de labellisation.

#### **Délibération :**

Sur la base de ces éléments, le Conseil d'Administration décide d'approuver la convention relative au renouvellement du dispositif de labellisation jointe en **annexe 5** et d'autoriser le Président à la signer.

**Adopté à l'unanimité.**

#### **4. Ikastetxeei zuzendu 2010-2011ko proiektu deialdia**

##### **Testuingurua :**

2010/06/04ean, Euskararen Erakunde Publikoak 2010-2011 urteko ikastetxeei zuzendu proiektu deialdia abiatu du. Hirugarren urtea da egiten duela.

2009/12/15eko Administrazio Kontseiluan erabakia izan zen 60 000 €ko fondo bat baztertzea proiektu deialdi horrentzat.

##### **Proiektuaren aurkezpena :**

Aitzineko urteetako metodoa segituz, 2010eko ekainean proiektu deialdiaren irekitzea jakinarazi zaie ikastetxeei. Proiektuen errezibitzeko azken epea 2010eko irailaren 20a zen.

EEPk 175 proiektu proposamen errezibitu ditu, 82 ikastetxek aurkeztuak.

Ikastetxeek orotarot galdegiten duten dirutza, dugun buxetaren dobleari dagokio.

149 proiekturen laguntzea proposatua da, orotara 61 802,36 € banatuz, jakinez, DRAC-atik edo Hezkunde Nazionaletik proiektu berarentzat diru laguntza bat izaten dutenentzat, EEPren dirulaguntza ttipituko dela (DRACatik edo Hezkunde Nazionaletik izanen duten diru hori EEPk emanen duenari kenduko baitzaio).

##### **Erabakia :**

Elementu hauek kontutan harturik, Administrazio Kontseiluak erabakitzen du :

- hautatuak izan diren 149 proiektuentzat, **6. eranskin**eko taulan agertzen diren diru laguntzak onartzea ;
- Lehendakariari baimena ematea :
  - dirulaguntza jakinarazteko ikastetxeei ;
  - onartu ez diren proiektuentzat, dirulaguntzarik ez dutela ukanen jakinarazteko.

**Aho batez onartua.**

#### **4. Appel à projets 2010-2011 destiné aux établissements scolaires**

##### **Contexte :**

L'Office Public de la Langue Basque a ouvert le 04/06/2010 l'appel à projets 2010-2011 destiné aux établissements scolaires pour la troisième année consécutive.

Il a été décidé, lors du Conseil d'Administration du 15/12/2009, de mettre en place pour 2010-2011, un fonds d'aide aux projets linguistiques portés par les établissements scolaires, d'un montant de 60 000 €.

##### **Présentation du projet :**

Dans le prolongement des travaux entamés les années précédentes, les établissements ont été informés en juin 2010 de l'ouverture de l'appel à projets. La date limite de réception des projets avait été fixée au 20/09/2010.

L'OPLB a reçu 175 propositions de projets émanant de 82 établissements scolaires.

La demande de subvention effectuée par les établissements est le double du budget alloué.

Il est proposé d'aider 149 projets pour un montant global de 61 802,36 € sachant qu'une partie de ce montant sera déduit en fonction des subventions attribuées par la DRAC et l'Education Nationale lors de l'appel à projets volet culturel.

##### **Délibération :**

Sur la base de ces éléments, le Conseil d'Administration décide :

- d'accorder aux 149 projets retenus les aides financières définies et indiquées dans le tableau joint en **annexe 6** ;
- d'autoriser le Président à :
  - notifier aux établissements scolaires retenus les aides accordées ;
  - notifier aux établissements scolaires non retenus le refus de l'aide et les motifs du refus.

**Adopté à l'unanimité.**

## 5. EEP/SARL Euskal Komunikabideak (Berria) profesionalizatze hitzarmena

### Testuingurua :

2006ko maiatzaren 30ean, Administrazio Kontseiluak erabaki zuen hizkuntza-ekintzan diharduten elkarte-eragileen profesionalizatzearen sostengatzea. Gisa horretan, alor juridikoa, teknikoa edo finantza alorrak jorratu behar izaten dituen elkarte ororen laguntzea ahalbidetuz.

Berria egunkaria, Euskal Herri osoan hedatua den euskarazko egunkari bakarra da. Bere hedapena hobetzeko Ipar Euskal Herrian, Berriak ikerketa bat egin nahi du. Proiektu hori EEPekin kontzertazioan finkatua izan da eta osoki sartzen da Hizkuntza Politika Proiektuaren norabideetan. Izan ere, HPPren lan ardatzetariko bat da « *euskarazko hedabideen eskaintza publiko zabalari helaraztea lurralde osoan* ».

Ikerketa lan horri esker, egoeraren argazki bat egin izanen da eta hobekuntza proposamenak ekarriak. Lan horrek parte hartuko du euskarazko prentsaren hedapenaren hobetzean.

### Proiektuaren aurkezpena :

EEP eta Euskal Komunikabideak egituraren artean hitzarmen bat finkatua izan da EEPk ikerketa lan hori nola lagunduko duen finkatzeko : nolako laguntza teknikoa ekarriko duen, eta diru mailan, zenbatekoa izanen den laguntza.

Hitzarmen horretan Euskal Komunikabideak egitura engaiatzen da ikerketa baten egitera Berria egunkariaren hedapena Ipar Euskal Herrian zertan den gaur egun adieraziz eta hedapenaren hobetzeko proposamenak eginez. Txosten bat ekoiztua izan beharko da, ondorioak agertaraziz.

Euskal Komunikabideak egiturak ikerketa hori eginen du, partez egiturako langileekin, eta partez kanpoko laguntzaile berezituiei dei eginez.

Ikerketa horren egiteko, EEPk proposatzen du 10 000 €ko dirulaguntza baten ematea gehienez, Euskal Komunikabideak egiturak izanen dituen gastuen %50a beregain hartuz.

### Erabakia :

Elementu horiek kontutan harturik, Administrazio Kontseiluak erabakitzen du :

- **10 000 €ko dirulaguntza baten ematea gehienez** Euskal Komunikabideak egiturari, ikerketaren gastuen %50eko muga ;
- EEP/Euskal Komunikabideak hitzarmena onartzea (**7. eranskina**) eta Lehendakariari baimena ematea hitzarmenaren izenpetzeko.

**Aho batez onartua.**

## 5. Convention d'aide à la professionnalisation OPLB/SARL Euskal Komunikabideak (Berria)

### Contexte :

En date du 30 mai 2006, le Conseil d'Administration de l'OPLB décidait d'encourager la professionnalisation des acteurs associatifs engagés dans l'action linguistique en les aidant dans le traitement des questions juridiques, techniques ou financières, inhérentes au bon fonctionnement de toute structure associative.

Le quotidien Berria, seul quotidien en langue basque diffusé sur le territoire, souhaite réaliser une étude visant à améliorer sa diffusion en Pays Basque de France. Ce projet d'étude a été élaboré en concertation avec l'OPLB et s'inscrit pleinement dans les orientations fixées dans le Projet de Politique Linguistique - « *permettre en tout point du territoire la diffusion des médias d'expression basque auprès du public* » -. Il apportera des éléments d'état des lieux, d'analyse et des pistes d'amélioration, qui pourront contribuer utilement à une meilleure diffusion de la presse de langue basque en général.

### Description du projet :

Une convention entre L'Office et la SARL Euskal Komunikabideak a été établie ayant pour objectif de définir les modalités d'accompagnement technique et financier du projet d'étude par l'OPLB.

Dans le cadre de cette convention, la SARL Euskal Komunikabideak s'engage à réaliser une étude visant à élaborer un état des lieux du dispositif actuel de diffusion du quotidien Berria en Pays Basque de France, et à effectuer des préconisations pour améliorer cette diffusion sur le territoire. Un rapport d'étude devra être produit, décrivant les résultats obtenus.

La SARL Euskal Komunikabideak se charge de la réalisation de l'étude, pour partie en interne, et pour partie en faisant appel à des prestataires spécialisés.

Pour sa réalisation, l'OPLB se propose d'attribuer une aide maximale de 10 000 €, dans la limite de 50% des dépenses engagées par la SARL Euskal Komunikabideak.

### Délibération :

Sur la base de ces éléments, le Conseil d'Administration décide :

- d'attribuer **une aide maximale de 10 000 €** à la SARL Euskal Komunikabideak dans la limite de 50% des dépenses engagées ;
- d'approuver le projet de convention OPLB/SARL Euskal Komunikabideak (**annexe 7**) et d'autoriser le Président à la signer.

**Adopté à l'unanimité.**



## 6. EEP/Biga Bai profesionalizatze hitzarmena

### **Testuingurua :**

Irakaskuntza elebiduneko edo murgiltze eredu guraso elkarteak laguntzen dituen gisan, EEPk Eusko Jaurilaritzarekin duen lankidetzarako fondoaren bidez, BIGA BAI elkarteak sostengatzen du 2007z geroztik. Gisa horretan, BIGA BAI elkarteak 2007an, 2008an eta 2009an lagundua izan da, 10 000 €ko diru-laguntza ukanez urte guziz.

Haatik, 2010eko diru-laguntza esleipenak erabaki zirenean, 2010eko maiatzaren 20ean bildu zen EEPren Administrazio Kontseiluak, BIGA BAI elkarteak ohizko dispositiboaren bidez ez laguntzea hautatu zuen, elkartearen jarduerak apaldu zirela ohartaraziz.

Jardueren apaltze horren arrazoin nagusia da, elkarteak, EEPk bere aktibitatea irakaskuntza arloan azkartu duenez geroztik, bere jarduera nagusiak utzi dituela eta ondorioz bere tokiaren berriz atzemaiteko zailtasunak dituela. Izan ere, orain artino, BIGA BAI elkarteak aitamekilako bilkurak antolatzen zituen, irakaskuntza elebidunaren alde jokatzeko, eta jendea sensibilizatzeko, sail elebidun berri irekitzeko helburuarekin, orain, EEPk beregain hartzen du lan hori. Gisa berean, orain artino elkarteak eskolaz laguntzen zituen, eskolaz kanpoko aktibitateak antolatzeko, eta orain EEPk laguntzen ditu Ikastetxeen Proiektu deialdiaren bidez.

### **Proiektuaren aurkezpena :**

Horri jarraikiz, eragilearekin adostua izan da, 2010 urte honetaz bialia, EEPk, profesionalizatze hitzarmen baten bidez, BIGA BAI elkarteak gogoeta eramaten bat lagunduko zuela, alde batetik bere aktibitateak berriz finka ditzan eta beste aldetik, elkarteko kide zenbait joatekotan direla kontutan harturik (horietan lehendakaria) eta orokorki aitamen inbestizamendua beitzitzen dela jakinez, BIGA BAI elkarteak testuinguru zail horri aurre egin dezan.

Gogoeta horrek ondorioztat izan beharko du norabide zehatzen definizioa. Horretarako, elkarteak kontutan hartu beharko du euskararen aldeko politika publiko bat egituratzen ari dela EEP sortu denaz geroztik, bereziki irakaskuntza arloan eta ondorioz irakaskuntza elebidunaren eskaintzaren garatze-lanaren testuinguru aldatu dela. Horregatik, elkartearen jarduerak EEPren ekintzekin elkar osatu eta uztartu beharko dute.

Txosten bat emana izan beharko zaio EEPri, norabide horiek azaltzen dituen. EEPk eragilea gogoeta horretan lagunduko du.

### **Erabakia :**

Administrazio Kontseiluak erabakitzen du **8. eranskinean** den BIGA BAI eta EEPren arteko hitzarmenaren onartzea eta Lehendakariari baimena ematea hitzarmen horren izenpetzeko.

### **Aho batez onartua.**

## 6. Convention d'aide à la professionnalisation OPLB/Biga Bai

### **Contexte :**

De même que l'ensemble des autres associations de parents d'élèves de l'enseignement bilingue ou immersif, l'association BIGA BAI fait partie des opérateurs aidés depuis 2007 par l'OPLB et par le Gouvernement Basque via le Fonds commun de coopération. L'association BIGA BAI a ainsi été aidée en 2007, 2008 et 2009 à hauteur de 10 000 €.

Cependant, lors de l'attribution des aides 2010, le Conseil d'Administration de l'OPLB du 20/05/2010, avait décidé de ne pas aider l'association BIGA BAI au titre du dispositif habituel, en raison d'une baisse constatée de l'activité de l'association.

Cette baisse d'activité est essentiellement due à une difficulté de repositionnement de l'association du fait de l'action développée par l'OPLB dans le domaine de l'enseignement, ayant amené l'association à abandonner ses activités principales : les actions d'information et de sensibilisation auprès des familles dans la perspective de l'ouverture de nouvelles sections bilingues, désormais conduites par l'OPLB, l'appui aux activités périscolaires dans les écoles, désormais soutenues par l'appel à projets de l'OPLB.

### **Description du projet :**

En accord avec l'opérateur, il avait été décidé de mettre à profit l'année 2010 pour accompagner BIGA BAI dans la conduite d'une réflexion sur la redéfinition de ses activités, sous couvert d'une convention de professionnalisation, dans un contexte où l'association devait par ailleurs faire face au départ, en application des statuts, de plusieurs membres fondateurs de l'association dont la présidente, ainsi qu'aux défis de la représentativité de l'association dans un contexte général de baisse de l'investissement des parents.

Cette réflexion devra amener la définition d'orientations précises, visant notamment la prise en compte de l'évolution du contexte de développement de l'offre d'enseignement bilingue avec la structuration, depuis la création de l'OPLB, d'une politique publique en faveur de la langue basque notamment dans le domaine de l'enseignement, et l'inscription de l'action de l'association en complémentarité et en soutien de celle conduite par l'OPLB dans le cadre de sa mission.

Un rapport devra être produit et remis à l'OPLB, décrivant ces orientations. L'OPLB accompagnera l'opérateur dans la conduite de cette réflexion.

### **Délibération :**

Le Conseil d'Administration décide d'approuver la convention OPLB/Biga Bai jointe en **annexe 8** de d'autoriser le Président à la signer.

### **Adopté à l'unanimité.**

## **7. Ikas-en eta EEPren arteko partaidetza : dokumentalista-laguntzailearen lan postuaren luzatzea**

### **Testuingurua :**

2010eko uztailaren 16an, Hezkunde Nazionalaren, Ikas zentro pedagogikoaren eta EEPren artean, hiru urterentzat oinarritzko hitzarmena izenpetu da.

Hitzarmen hau, 2006-2009 urteetako hitzarmenari segida ematen diona, partaideek egin dute, 2009ko maiatzean egin den IKASen ebaluaketa kontutan hartuz.

Txosten horrek aurkezten ditu urteko gehigarri baten bidez EEPk lagundurik, IKAS egituraren indartzeko segitu beharko diren zazpi aholku.

### **Proiektuaren aurkezpena :**

*4. aholkua : IKAS, kopuru mailako beharrei erantzuteko dimentsionatu : Dokumentu baliabide arloan (IKASen mediateka).*

*Aholku hau egiteko, Ikasek dokumentazio guneko fondoaren gaurkotzeko eta egokitzeko 19 hilabeterentzat dokumentalista-laguntzaile baten kontratatzea proposatu du.*

2010eko gehigarria izenpetu delarik, EEPk hitzartu du lehenik lau hilabeteren gastuak 11 000 € bozkatzeari ondotik, zehazkiago egiazko beharra neurtzeko gisan.

Gehigarri honetan Ikas 11 000€z diruz laguntzea hitz hartu zen, kopuru hau dokumentalista-laguntzailearen 2010eko irailetik abendu arteko lehen kontratuaren gastuak izanki.

Orain, Ikas-ek EEPri zehazki beharrak kronograma baten bidez jakinarazi dizkio eta ondorioz honi lotuak zaizkion gastuak.

### **Erabakia :**

Dokumentalista-laguntzaileak bere lana beste hamabost hilabetez segi dezan eta 2010eko uztailaren 8ko Administrazio Kontseiluan bozkatu zen dirulaguntzari jarraikiz (11 000 € eman ziren), Administrazio Kontseiluak erabakitzen du **23 920 €ko dirulaguntza osagarri baten ematea** Ikas egiturari.

**Aho batez onartua.**

## **7. Partenariats OPLB/Ikas : prolongement du contrat de l'aide-documentaliste**

### **Contexte :**

Le 16 juillet 2010, la convention cadre relative au centre Ikas a été signée entre l'Education Nationale, le Centre Pédagogique Ikas et l'OPLB, pour trois ans.

Cette convention, qui fait suite à celle de 2006-2009, a été établie par les partenaires au regard de l'évaluation de l'action du centre pédagogique IKAS réalisée entre mai et novembre 2009.

Ce rapport établit sept préconisations qui feront l'objet d'une mise en œuvre conventionnée entre Ikas et l'OPLB.

### **Présentation du projet :**

*Préconisation 4 : Dimensionner Ikas pour lui permettre de répondre aux besoins sur le plan quantitatif dans le domaine des ressources documentaires (médiathèque d'Ikas).*

*Pour engager la mise en œuvre de cette préconisation, Ikas a proposé de recruter un(e) aide-documentaliste pour 19 mois chargée du catalogage des fonds éditoriaux, dans la double perspective de la récupération du retard en la matière et de la préparation du déménagement du centre Ikas.*

Lors de la signature de l'avenant 2010, il a été décidé de s'engager pour les quatre mois de sa contractualisation de 2010 afin de pouvoir par la suite évaluer les besoins réels nécessaires.

Cet avenant prévoyait ainsi l'accompagnement d'Ikas à hauteur de 11 000 € correspondant au premier contrat de l'aide-documentaliste de septembre à décembre 2010.

Suite à ces quatre mois, l'OPLB et Ikas sont en mesure d'évaluer les besoins exacts et par conséquent, de chiffrer le coût prévisionnel.

### **Délibération :**

Pour permettre la poursuite du travail de l'aide-documentaliste sur 15 mois supplémentaire, et dans la continuité de l'appui financier de 11 000 € voté par le Conseil d'Administration du 8 juillet 2010, le Conseil d'Administration décide d'apporter **une aide complémentaire de 23 920 €** à Ikas.

**Adopté à l'unanimité.**

## 8. Euskal Herri Hegoaldeko Herri Elkargoaren euskara formakuntza plangintza

### Testuingurua :

2006an Herri Elkargoekin izenpetu Hitzarmenen baitan, 2007ko abenduaren 24ko Administrazio Kontseiluak euskararen garapena eta erabilerari lotu jarduerak sostengatzea erabaki zuen.

### Proiektuaren aurkezpena :

Herri Elkargoak EEPren laguntza eskatzen du bi xederentzat :

- Hendaia hiriarri (gaur egun 13 agente, hots langileriaren %5 nonbait han, 2008an hasi plangintzaren barnean dituenak) ezinezkoa zaio, antolakuntza arazoak direla medio, baldintza beretako formazioa eskaintzea borondatea duten bere 8 agenterri. Arteko aterabide bat proposatu die urte baterako, hau da, astean oren bat eta erdiko bi saio astero, egunaren hondarrean (lan deboratik kanpo), eta hau, 2010eko irailetik 2011ko ekainera.

Arteko aterabide hau proposatzen zaie, heldu den hunkituak diren agenteak heldu den urtean, usaiako formazio plangintzetan sartuko direlako perspektiban.

Herri Elkargoak **ezohiko neurri** gisa, plangintza honen herenaren finantzamenduan parte hartzea erabakia du eta EEPren laguntza eskatzen du honen finantzamenduarentzat, kopuru osoaren herenarentzat, aitzineko urtetan bezala.

Plangintza osoaren kostua 5 301 €koa da.

- Lurraldeko agente bat joan den irailean sartu da 2008an martxan ezarri ziren formazio plangintzen barneko talde batetan.

Plangintza honen kostua 1 275 €koa da 2010erako.

### Erabakia :

Elementu horiek kontutan harturik, Administrazio Kontseiluak erabakitzen du bi egitasmo hauen laguntzea :

- **1 767 €ko diru laguntza emanez**, arteko aterabide gisa antolatua den Hendaia hiriko 8 agenteentzako formazio plangintzarentzat ;
- **425 €ko diru laguntza emanez**, 2008an martxan ezarri ziren formazio plangintzako taldeetariko batetan joan den irailean sartu zen Euskal Herri Hegoaldeko Herri Elkargoko agentearien hizkuntza mailako etengabeko prestaketarentzat.

### Aho batez onartua.

## 8. Plan de formation linguistique Communauté de Communes Sud Pays Basque

### Contexte :

Dans le cadre des conventions établies en 2006 avec les Communautés de Communes, le Conseil d'Administration du 24/12/2007 a décidé de soutenir les projets liés au développement et à l'usage de la langue basque.

### Description du projet :

La Communauté de Communes sollicite l'OPLB pour deux demandes différentes :

- La commune d'Hendaye, (dont 13 agents, c'est-à-dire environ 5% du personnel communal, entrent déjà dans le dispositif des plans de formation mis en place en 2008), ne peut pas, pour des raisons d'organisation de services, offrir les mêmes conditions à 8 autres agents volontaires et propose une solution intermédiaire pour une durée d'un an à savoir l'organisation de cours d'une heure et demie dispensés deux fois par semaine, en fin de journée (hors temps de travail), et ce pour la période de septembre 2010 à juin 2011.

Cette solution intermédiaire est proposée dans la perspective d'intégration, l'année suivante, des agents concernés dans les plans de formation classiques.

La Communauté de Communes envisage de participer financièrement à hauteur du tiers du coût de cette formation à titre exceptionnel, et sollicite l'appui de l'OPLB à hauteur du tiers du coût, comme les fois précédentes.

Ce plan de formation représente un coût total de 5 301 €.

- Un des agents territoriaux a intégré en septembre dernier un des groupes de formation professionnelle faisant partie du dispositif mis en place en 2008.

Ce plan de formation représente un coût de 1 275 € pour 2010.

### Délibération :

Compte tenu de ces éléments, le Conseil d'Administration décide d'accompagner ces deux opérations :

- en allouant **une subvention de 1 767 €** pour financer le plan de formation organisé à titre intermédiaire par la commune d'Hendaye pour 8 de ses agents ;
- en allouant **une subvention de 425 €** en vue de cofinancer la formation linguistique de l'agent territorial de la Communauté de Communes Sud Pays Basque qui a intégré en septembre dernier un des groupes de formation professionnelle faisant partie du dispositif mis en place en 2008.

### Adopté à l'unanimité.

**Berri emateak :**

**Ikastetxeei zuzendu Proiektu deialdia**

2009-2010 urteko bilana aurkeztua da (**ikus 9. eranskina**).

Bilkura 19:30tan bururatu da.

**Informations diverses :**

**Appel à projets portés par les établissements scolaires**

Le bilan de l'année 2009-2010 est présenté (**cf annexe 9**).

La séance est levée à 19h30.

<b>Le Président</b> <i>Lehendakaria</i>
<b>Visa du Contrôle de légalité</b> <i>Legalitate kontrola</i>



20

11

•

20

16

**EUSKO JAURLARITZAREN KULTURA SAILAREN  
HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZAREN  
ETA EUSKARAREN ERAKUNDE PUBLIKOAREN ARTEAN  
HIZKUNTZA POLITIKAKO GAIETAN  
LANKIDETZAN JARDUTEKO HITZARMENA**

-

**HITZARMEN-MARKOA 2011-2016**

**ATARIKOA**

Kontutan hartuz 1980ko maiatzaren 21ean Madrilen sinatutako mugaz gaindiko Lankidetzarako Hitzarmen-Markoa,

Kontutan hartuz Espainiako Estatuak eta Frantziako Errepublikak 1995eko martxoaren 10ean sinatutako mugaz gaindiko Lankidetzarako Tratatuak,

Alde batetik, Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren egitura organikoa finkatzen duen Dekretuan jasotakoaren arabera, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari dagokio Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza-politika zehaztea eta jarraipena egitea, euskararen erabilera normalizatzeari dagokionez, eta arlo horretako jardun-irizpideak garatzea eta ezartzea.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren egiteko dira, besteak beste : Euskal Autonomia Erkidego osorako plangintza orokorra osatzea eta jarduera bateratuak burutzeko planak egitea; hizkuntza-politikan eskumena duten herri-aginte guztien arteko lankidetzaren dinamizatzea eta sustatzea; hizkuntza normalizatzeko zereginetan, euskara normalizatzen eta araupetzen diharduten erakundeekin harremanak izatea, eta euskal hiztunen komunitate osoa kontuan izanik, beste lurralde batzuetako era guztietako erakundeekin ere aritzea.

Eusko Legebiltzarrak 1999ko abenduaren 10ean balio osoz egindako Osoko Bilkuran, Eusko Jaurlaritzak 1998ko uztailaren 28an onartutako Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia berretsi zuen, eta, horretaz gain, 3. ebazpenean, Nafarroako eta Iparraldeko erakunde pribatuekin eta publikoekin lankidetzan euskararen sustapena bultzatzeko eskatu zion Eusko Jaurlaritzari.

Izenpedura  
**Kultura Saila**

Izenpedura  
**Euskararen  
Erakunde Publikoa**



20

11

•

20

16

Izenpedura  
**Kultura Saila**

Izenpedura  
**Euskararen  
Erakunde Publikoa**

Bestalde Euskararen Aholku Batzordeak 2009. urtean onartutako *Euskara 21, Itun Berritu Baterantz* izeneko dokumentuan honako hau jasotzen da : "*euskararen lurralde bakoitzeko esparruari dagokio, demokratikoki eta bertako herritarren borondate eta asmoen arabera, tokian tokiko hizkuntza politika diseinatu, gauzatu eta ebaluatzea, betiere gutxiengoaren eskubideekiko errespetua bermatuz. Nolanahi ere, gure Erkidegoko herri-aginteez jarraitu behar dute euskararen gainerako lurraldeetako erakundeekin elkarlana eta lankidetzaren indartzen, hizkuntza politikaren garapenean*".

Beste aldetik, 2000ko abenduaren 22an, frantses estatuak, Akitania Eskualdeko Kontseiluak, Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Orokorrak, Baiona-Angelu-Miarritze hiri elkargoak eta Euskal Herriko Hautetsien Biltzarrak, Euskal Herriko Hitzarmen Berezia izenpetu zuten eta bereziki hizkuntza atalari buruz diru engaiamenduak hartu zituzten hamar lan-lerroen obratzeko.

2001ean Hizkuntza Politikarako obragintza publikoa sortu zuten, frantses estatuak, Akitania Eskualdeko Kontseiluak, Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Orokorrak, Euskal Kulturaren Aldeko Herrien Arteko Elkargoak eta Euskal Herriko Hautetsien Kontseiluak; egitura honek hizkuntza politikaren oinarriak finkatu, ahalbideak eskaini eta bideratu eta sustatu beharreko proiektuak zehaztu zituen.

2003ko irailaren 3an Baionako protokoloa sinatu zen; horren bitartez Euskal Autonomia Erkidegoak eta Obragintza Publikoko lurralde egiturek hizkuntza politika arloan lankidetzaren bultzatzea erabaki zuten, hainbat ekimen adostuz eta informazio trukaketa bat egituratuz, alde batak edo besteak burutu ditzaketen jardunez.

2004. urtean Euskararen Erakunde Publikoa eratu zen, Obragintza Publikoaren segida hartuz. Erakundearen eginkizunak dira, batetik, euskararen aldeko hizkuntza politika publikoa eta hitzartua asmatzea, definitzea eta obratzea; bestetik, behar diren finantza baliabideak bermatzea, bere egitasmoan ezarri dituen ekintzak edo obralari batzuekin hitzartu dituenak gauzatzeko.

Bere eginkizuna betetzeko, Euskararen Erakunde Publikoak Hizkuntza Politika Proiektu bat definitu du eta adostu 2006ko abenduaren 21ean.

Euskararen Erakunde Publikoa sortua izan delarik, bi partaideek onartu zuten 2003an eta 2004an gauzatu protokoloa berriz antolatzea 2005 eta 2006 urteetan eta, anartean, tarte hori baliatzea helburu handiagoko lankidetzaren instituzional baten norabideak finkatzeko.

Horrela, 2007ko otsailaren 7an, Baionan, Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren eta Euskararen Erakunde Publikoaren arteko Hitzarmena Hizkuntza-Politikako Gaietan Lankidetzaren Jarduteko sinatu zen. Hitzarmenak 2007. urtetik 2010. urte bitartean izan du indarraldia.

Bi izenpetzaileek lehen kolaborazio horren balorazio positiboa egiten dute, eta bat egiten dute lankidetzaren horren berritzeko asmoan.



20

11

•

20

16

Bi aldeek aitortzen dute ekin dioten lankidetzaren proiektu honek, bakarra baina koordinatua eta bakoitzak bere mugaren baitako eremuan gauzatua, bien arteko liderazgoa eta interlokuzioa eskatzen duela.

Bi aldeek baieztatzen dute, halaber, Hitzarmen honetan jasotzen diren xedapenetan arautzen ez diren gaiak, nazioarteko zuzenbideko arauak, auzokide onen arteko jokabideak eta Europako Legebiltzarreko 1992ko ekainaren 9ko azkeneko ebazpenak duen izpiritua arautuko dituztela.

## **BILDURIK**

Batetik, Eusko Jaurlaritzaren Kultura sailburua,  
**Blanca Urgell** andrea,

bestetik, Euskararen Erakunde Publikoaren lehendakaria,  
**Max Brisson** jauna,

nork bere duen ordezkari gorenaz, honako hau

## **ADIERAZTEN DUTE**

Eusko Legebiltzarrek 1999ko abenduaren 10ean berretsitako Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak eta Euskararen Erakunde Publikoak 2006ko abenduaren 21an adostu Hizkuntza Politika Proiektuak eskaintzen duten erreferentzia-markoa kontuan, Eusko Jaurlaritzaren eta Ipar Euskal Herriko Euskararen Erakunde Publikoaren arteko lankidetzaren ildoak zehazteko, bi alderdiek hitzarmen hau izenpetzea erabaki dute, ondokoaren arabera :

Izenpedura  
**Kultura Saila**

Izenpedura  
**Euskararen**  
**Erakunde Publikoa**

### **1.- Hitzarmenaren xedea**

Hitzarmen honen xedea da Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren eta Ipar Euskal Herriko Euskararen Erakunde Publikoaren artean euskararen gaineko hizkuntza-politikako gaietan mugaz gaindiko lankidetzaren garatzearen aldeko borondatea berrestea eta erakunde mailako harreman iraunkorrak egonkortzea eta garatzen jarraitzea, herri-erakunde bakoitzaren erabaki-autonomia eta funtzionamendu-arauak errespetatuta.



20

11

•

20

16

## 2.- Elkarlanaren printzipioak edo irizpide nagusiak

- Alderdi biek adierazten dute hizkuntza politikaren arloan garatuko den elkarlana, mugaz bi aldeetako ezaugarri juridikoak kontuan izanda garatuko dela, eta ezaugarri juridiko horien artean diren ezberdintasunekiko errespetuan jarduteko borondatea agertzen dute.
- Hitzarmena mugaz bi aldeko erakunde publiko ezberdinen arteko euskara sustatzeko politika garatzeko tresna izatea nahi dutela aitortzen dute sinatzaileek.
- Euskal Autonomia Erkidegoan eta Ipar Euskal Herrian hizkuntza komuna delako euskararen praktika garatzeko eta atxikitzeko nahia baieztatzen dute alderdiek, betiere bakoitzaren berezitasunak errespetatuz.
- Alderdi biek adosten dute, dituzten eskumenen esparruan, bakoitzaren gizarteko errealitate politiko eta sozialak gero eta hobeto ezagutarazi eta elkarren arteko adiskidetasuna garatu nahi dituztela.
- Halaber, alderdi biek aitortzen dute beharrezkoa dela bien arteko harremana indartzea jadanik abian dituzten edo aurrerantzean izan ditzaketen ekimenak bermatzeko eta bien intereseko lankidetzak garatzeko.
- Alderdi biek mugaz bi aldeetako partaidetza azkartzeko borondatea eta euskararen arloan hizkuntza politika hitzartu baten egituratzea berresten dute.

Izenpedura  
**Kultura Saila**

## 3.- Mugaz bi aldeetako erakunde publikoek elkarrekin gara ditzaketen jarduerak

Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eta Ipar Euskal Herriko Euskararen Erakunde Publikoaren egitekoak eta lan-lerroak kontuan izanik, ondoko arloetan elkarlanean jarduteko borondatea adierazten dute hitzarmenaren sinatzaileek.

Bi partaideek ondoko lau erronka horiei lotutako jarduerak elkarrekin antolatzeke edo sustatzeko konpromisoa hartzen dute :

- Euskararen transmisioa : erronka horrek adin guzietako hiztunen kopurua emendatu nahi du, eta, ondorioz, aitzineko urteetan inkesta soziolinguistikoek agerian jarri duen bilakaera aldatu.
- Hizkuntzaren presentzia eta erabilera : euskararen presentzia garatu nahi du bizitza sozial publiko zein pribatuaren alor guzietan.

Izenpedura  
**Euskararen**  
**Erakunde Publikoa**





20

11

•

20

16

• Hizkuntzaren kalitatea : hizkuntzaren kalitatea zaindu eta areagotu nahi da, ahoz eta idatziz, erabilera publiko zein pribatuko esparru ezberdinetan.

• Gogoia, aldeko jarrera : zeharkakoa da. Helburua da aldeko jarrera bultzatzea, gizartearen atxikimendua azkartzea, aitzineko beste lan sail guzietan eraginkorragoak izateko gisan.

Bestalde, esandako erronkak erdiesten laguntzeari begira eta euskararen bilakaera soziolinguistikoa hobeto ezagutzen joateko, ikerketa-lerroak sustatuko eta bideratuko dira : Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoa, Euskararen presentzia eta erabilera neurtzeko adierazleen definizioa eta horien gaineko informazio trukaketa, besteak beste.

Azkenik, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eta Euskararen Erakunde Publikoak, aldian-aldian, elkarri adieraziko dizkiote hizkuntza-politikaren esparruan bi aldeek jakingarri izan ditzaketen ekimenak, hitzarmen honetan jasotako arloen gainekoak izan zein beste arlo jakin batzuetakoak izan.

#### **4.- Elkarlana zehazteko prozedura : Urteko Eranskina**

Hitzarmena elkarlanerako marko eta erreferentzia nagusia izanik, urtero sinatuko da alde bien artean elkarlanerako Eranskina.

Bi atal nagusi jasoko dira elkarlanerako urteroko eranskinean :

##### **4.1.- Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren eta Euskararen Erakunde Publikoaren arteko ekimenak**

Urtero, Eranskin horretan zehaztuko dira bi erakundeek elkarlanean gauzatu dituzten programa zehatzak, bai eta gauzatze horren xehetasunak : alde bakoitzak egingo dituen ekimenak, baliabideak, ekimenen zabalkundea eta abar.

Hitzarmen honen 5. atalean aipatzen den Jarraipenerako Batzorde Teknikoak prestatuko du jarduera horien gaineko proposamen zehatza, ondoren maila Politikoko Batzordeak aztertu eta, hala badagokio, onartzeko.

##### **4.2.- Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren eta Euskararen Erakunde Publikoaren sustapen-lerroak Ipar Euskal Herriko eragileei dagokienez**

###### **4.2.1.- Iparaldeko eragile pribatuen lana diruz laguntzea**

Euskararen erabilera areagotzeko xedez, Ipar Euskal Herriko hainbat eragile pribatuen lana finantzatzeko moduaren gaineko zehaztasunak jasoko dira urtero Eranskinean.

Izenpedura  
Kultura Saila

Izenpedura  
Euskararen  
Erakunde Publikoa



20

11

•

20

16

Lankidetzarako fondo bat eratuko da, alde bien ekarpenez, eta hitzarmen honetan oinarriturik, 5. atalean aipatzen den Jarraipenerako Batzordeak koordinatuko du. Urteroko Eranskinak alde baten eta bestearen diru ekarpenak eta eragiteko mekanismoak finkatuko ditu. Alde bien arteko adostasunez kudeatuko dira aipaturiko diru-laguntza deialdia eta dagokion lankidetzara fondoak.

Jarraipenerako Batzordeak urtero proposatuko ditu lehentasunak, helburuak, ekintzak, aurrekontuak eta erabiltzeko arauak. Halaber, Batzordeak proposatuko du urtero zein egitasmo balia daitekeen laguntzaz, betiere hitzarmen honetan ezarritako irizpideekin eta helburuekin bat etorritik.

Lankidetzarako fondoaren kudeaketa, nagusiki, Euskararen Erakunde Publikoaren eskutik izango da : Euskararen Erakunde Publikoak urtero lehiaketa publikorako deia egingo du. Hala ere prozesu horretan Eusko Jaurlaritzaren laguntza eta presentzia arlo guztietan bermatuko da : egitasmoen balorazioa egiterakoan, epaimahaietan, laguntzen diren egitasmoen zabalkundean, gaiarekin loturiko aurkezpen edota prentsaurrekoetan...

#### 4.2.2.- Euskarazko argitalpenak Iparraldeko Irakurketa Publikoko Sarean hedatzea

Euskaraz sortutako eta euskarara itzulitako euskarrien erosteko eta Iparraldeko liburutegietan eta liburuaren munduan diharduten bestelako eragileengan hedatzeko lankidetzara fondoak eratuko da.

Erakunde bien artean sortutako fondoaren kudeaketaren ardura Euskararen Erakunde Publikoak hartuko du bere gain eta lehenago aipatutako onuradunei zuzendutako euskarazko argitalpen ekoizpenen erosteko laguntza dispositibo berezi baten bitartez bideratuko da. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak dispositiboaren inguruko berri zehatza izateaz gain, egokiak iruditzen zaizkion hobekuntzak proposatzeko aukera izango du.

Euskararen Erakunde Publikoak laguntza jasoko duten onuradunei zuzendutako aholkularitza zerbitzua eratuko du.

Dispositibo horrek izan ditzakeen ezaugarri edo berezitasun teknikoak zalantzan jarri gabe, laguntza emateko prozeduran, eta onuradunei eskaini aholkularitza zerbitzuan, Euskararen Erakunde Publikoak honako printzipio hauek izango ditu gogoan : gardentasuna, berdintasuna, objetibotasuna, konkurrentzia eta diskriminazio eza.

### **5.- Hitzarmenaren iraupena eta jarraipena egiteko moduak**

Hitzarmenak 2011. urtetik 2016. urte bitartean izango du indarraldia. 2016 urtean, berriz, alde biek horrela erabakiko balute, hitzarmena berrituko/luzatuko dute.

Izenpedura  
**Kultura Saila**

Izenpedura  
**Euskararen**  
**Erakunde Publikoa**



20

11

.

20

16

Hitzarmen hau izenpetuta, Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren eta Ipar Euskal Herriko Euskararen Erakunde Publikoaren arteko Jarraipenerako Batzordea izendatuko da, hemen jasotakoaren segimendua egiteko.

Jarraipenerako Batzordeak bi maila izango ditu :

- Batetik, maila estrategikoko Gidaritza Batzordea izango da. Bertan Eusko Jaurlaritzaren aldetik Kultura sailburua, Hizkuntza Politikarako sailburuordea, Euskara Sustatzeko zuzendaria, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako Koordinaziorako zuzendaria eta Hizkuntza Politikarako aholkularia izango dira; eta Euskararen Erakunde Publikoaren aldetik : lehendakaria, bi lehendakariordeak, Baionako suprefeta eta zuzendaria.
- Bestetik, maila teknikoko Batzordea eratuko da, erakunde bietako teknikariez osatuta eta Euskararen Erakunde Publikoaren zuzendariaren eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren Euskara Sustatzeko zuzendariaren agindupean.

Batzordearen Idazkaritza osatuko dute Euskararen Erakunde Publikoaren zuzendariak eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren Euskara Sustatzeko zuzendariak, erakunde bakoitzaren lantalde teknikoaren laguntzarekin.

Maila politikoko Batzordeak urtean behin gutxienez egingo du bilera, hitzarmenaren jarraipena egiteko, bereziki aurreko urteko balantzea aztertzeke eta urteko egitasmo-proposamena onartzeko.

Batzorde teknikoak, berriz, Hitzarmenaren jarraipen egokiak horrela eskatzen duen guztietan egingo du bilera.

## 6.- Beste betebeharrak

Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez :

Hitzarmena gauzatzeko azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren VI. Tituluan laguntza eta diru-laguntzetarako ezarritako araubidea bete beharko da, baita 50.2 artikuluan ezarritako betebeharrak ere, eta, bereziki, beren lana burutzeko eskatzen duten informazio guztia emango zaie Ogasun eta Herri Administrazio Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari.

Frantziako instituzioei dagokienez :

Hitzarmen honen gauzatzeko kultur jarduerak daramaten Interes Publikoko Elkargoak arautzen dituen 1991ko azaroaren 28ko 91.1215 Dekretua eta kontabilitate publikoko arauak errespetatu beharko ditu.

Izenpedura  
Kultura Saila

Izenpedura  
Euskararen  
Erakunde Publikoa



20

11

.

20

16

Bestalde, hitzarmenaren aplikazioan sor daitezkeen auziak Euskal Autonomia Erkidegoko epaitegi eta auzitegi eskudunen jurisdikzioak eta Paueko Epaitegi Administratiboak ebartziko dituzte kasuen arabera.

Hitzartutakoa hala ager dadin, eta esan bezala betetzeko, bi alderdiek hitzarmen hau izenpetzen dute frantsesez eta euskaraz, biak ere balio berekoak izanik.

Baionan, 2011. urteko urtarrilaren XXan.

**Blanca Urgell**  
Eusko Jaurlaritzaren  
Kultura sailburua

Izenpedura

**Max Brisson**  
Euskararen Erakunde Publikoaren  
lehendakaria

Izenpedura



20

11

•

20

16

**CONVENTION DE PARTENARIAT**  
EN MATIERE DE POLITIQUE LINGUISTIQUE  
ENTRE LE SOUS-MINISTERE DE LA POLITIQUE LINGUISTIQUE  
DU GOUVERNEMENT BASQUE  
ET L'OFFICE PUBLIC DE LA LANGUE BASQUE

-

**CONVENTION-CADRE 2011-2016**

**PREAMBULE**

Vu la Convention-Cadre du Conseil de l'Europe relative à la coopération transfrontalière entre collectivités territoriales signée à Madrid le 21 Mai 1980,

Vu le Traité entre la République française et le Royaume d'Espagne relatif à la coopération transfrontalière entre collectivités territoriales, signé à Bayonne le 10 mars 1995,

Compte tenu, d'une part, du décret sur l'organisation du Ministère de la Culture du Gouvernement Basque confiant au Sous-Ministère de la Politique Linguistique le soin de mettre en oeuvre et de suivre la politique du Gouvernement Basque en matière de normalisation de l'utilisation de la langue basque, et d'en fixer les critères de mise en oeuvre.

Compte tenu que le Sous-Ministère de la Politique Linguistique est, entre autres, chargé : de définir un plan d'ensemble à l'échelle de la Communauté Autonome d'Euskadi et d'en fixer les programmes d'actions; de dynamiser et de soutenir les partenariats entre pouvoirs publics ayant compétence en matière de politique linguistique; de développer, au regard de l'ensemble de la communauté bascophone, des relations avec tous les organismes d'autres territoires oeuvrant à la normalisation de la langue basque.

Compte tenu de la ratification par le Parlement Basque, dans sa séance du 10 Décembre 1999 du Plan Général de Revitalisation de la langue basque validé par le Gouvernement Basque le 28 Juillet 1998 et de la demande formulée au Gouvernement Basque dans la troisième résolution, de développer la promotion de la langue basque en partenariat avec les organismes publics et privés de Navarre et du Pays Basque français.

Signature  
**Ministère de la Culture**

Signature  
**Office Public  
de la Langue Basque**



20

11

•

20

16

Compte tenu du document intitulé *Euskara 21, Vers un pacte renouvelé* adopté en 2009 par le Comité Consultatif de la Langue Basque initié par le Gouvernement Basque qui stipule qu' *"il appartient à chacun des territoires de la langue basque, démocratiquement et selon les volontés et souhaits des citoyens concernés, de définir, mettre en oeuvre et évaluer les politiques linguistiques, dans le respect des droits des minorités. Ainsi, les institutions de notre Communauté Autonome doivent, en matière de politique linguistique, poursuivre et renforcer la coopération avec les institutions des autres territoires de la langue basque"*.

Compte tenu, d'autre part, de la Convention Spécifique Pays Basque signée le 22 décembre 2000 par l'Etat, la Région Aquitaine, le Département des Pyrénées-Atlantiques et la Communauté d'Agglomération Bayonne-Anglet-Biarritz et plus particulièrement de son volet linguistique faisant l'objet d'un engagement financier de l'Etat, de la Région et du Département autour de dix actions.

Compte tenu de la création en 2001 par l'Etat, le Conseil Régional, le Département, le Syndicat Intercommunal de soutien à la culture basque et le Conseil des Elus du Pays Basque de la Maîtrise d'Ouvrage Publique, instance chargée de définir les orientations de la politique linguistique, de mobiliser les moyens nécessaires, d'arrêter les projets à promouvoir.

Compte tenu de la création en 2004, par les mêmes acteurs, de l'Office Public de la Langue Basque (OPLB) prenant le relais de la Maîtrise d'Ouvrage Publique, et ayant pour mission, d'une part, de concevoir, définir et mettre en oeuvre une politique linguistique publique et concertée en faveur de la langue basque, et d'autre part, de mobiliser les moyens financiers nécessaires pour mener à bien les actions retenues dans le cadre de son propre programme d'activités, ou confiées à des maîtres d'œuvres qu'il conventionne à cette fin.

Signature  
Ministère de la Culture

Compte tenu que, pour remplir sa mission, l'office Public de la Langue Basque a défini un Projet de Politique Linguistique adopté le 21 décembre 2006.

Compte tenu que, à la signature du protocole de Bayonne du 3 septembre 2003, la Communauté Autonome d'Euskadi et les entités territoriales de la Maîtrise d'Ouvrage Publique ont décidé de promouvoir un partenariat dans le domaine de la politique linguistique en se concertant sur un certain nombre d'opérations et en structurant une information réciproque sur toutes initiatives qui seraient prises de part et d'autre.

Signature  
Office Public  
de la Langue Basque

Compte tenu que, à la création de l'Office Public, il a été convenu par les deux partenaires de prolonger en 2005 et en 2006 le protocole mis en oeuvre en 2003 et en 2004 dans l'attente de préciser les modalités d'un partenariat institutionnel plus ambitieux.

Ainsi, le 7 février 2007 à Bayonne, une Convention de coopération en matière de politique linguistique était signée entre le Sous-Ministère de la Politique Linguistique du Gouvernement Basque et l'Office Public de la Langue Basque pour la période 2007 / 2010.

Les signataires dressent un bilan positif de cette collaboration et conviennent de reconduire le partenariat.



20

11

•

20

16

Les signataires réaffirment que ce projet de partenariat nécessite une gestion commune, coordonnée et concertée et sera mis en oeuvre dans les limites du territoire d'action de chacun des partenaires.

Les signataires réaffirment que les règles de bonnes relations de voisinage dans l'esprit de la Décision du Parlement Européen du 9 Juin 1992 serviront de références au traitement des sujets n'entrant pas dans les dispositions de la présente convention.

### ENTRE LES SOUSSIGNES

D'une part, la Ministre de la Culture du Gouvernement Basque,  
Madame **Blanca Urgell**,

Et d'autre part, le Président de l'Office Public de la Langue Basque,  
Monsieur **Max Brisson**,

Représentant leurs institutions respectives,

Signature  
Ministère de la Culture

### IL EST CONVENU CE QUI SUIT

En référence au Plan Général de revitalisation de la langue basque, ratifié par le Parlement Basque le 10 Décembre 1999 d'une part, et en référence au Projet de Politique Linguistique adopté par l'Office Public de la Langue Basque le 21 décembre 2006 d'autre part, le Gouvernement Basque et l'Office Public de la Langue Basque décident de signer la présente convention afin de concrétiser leurs souhaits de partenariat, tel que précisé ci-après :

Signature  
Office Public  
de la Langue Basque

#### 1.- Objet de la convention

Cette convention illustre la volonté du Gouvernement Basque et de l'Office Public de la Langue Basque de pérenniser et de conforter un partenariat transfrontalier en matière de politique linguistique concernant la langue basque, dans le respect de l'autonomie de décision et des règles de fonctionnement de chacun des organismes concernés.



20  
11  
•  
20  
16

## 2.- Principes généraux du partenariat

- Les deux parties affirment que le partenariat transfrontalier en matière de politique linguistique qui sera mis en place prendra en compte le cadre légal en vigueur dans chacun des territoires et expriment leur volonté d'en respecter les différences et spécificités légales et juridiques.
- Les signataires affirment leur volonté de faire de cette convention un outil de développement d'une politique transfrontalière en faveur de la langue basque.
- Les signataires affirment une volonté partagée de préserver et développer la pratique de la langue basque, commune aux deux territoires dans le respect des prérogatives propres à chacun des deux partenaires.
- Les signataires confirment leur volonté de mieux connaître les réalités sociales et politiques respectivement vécues par les uns et par les autres et de développer des relations d'amitié.
- Les signataires considèrent nécessaire, dans l'intérêt des deux parties, de s'appuyer sur cette relation de partenariat afin de mener à bien des initiatives en cours ou celles qui pourraient être prises.
- Les deux partenaires confirment leur volonté de renforcer le partenariat transfrontalier entre les institutions publiques et de structurer dans le domaine de la langue basque une politique publique concertée.

Signature  
**Ministère de la Culture**

## 3.- Activités susceptibles d'être menées ensemble par les institutions publiques des deux côtés de la frontière

Prenant en compte les axes de travail du Sous-Ministère de la Politique Linguistique du Ministère de la Culture du Gouvernement Basque et de l'Office Public de la Langue Basque, les signataires expriment leur volonté de développer des relations de travail.

Signature  
**Office Public  
de la Langue Basque**

Les deux partenaires décident de mener en commun et de soutenir les activités qui répondent à l'un des quatre enjeux suivants :

- Enjeu Transmission de la langue : il répond à l'objectif d'augmenter le nombre de locuteurs de tous âges et d'inverser ainsi le déclin observé ces dernières années et mis en lumière par les enquêtes sociolinguistiques successives.
- Enjeu Présence et utilisation de la langue : il vise à développer la place de la langue basque dans tous les pans de la vie sociale et de la vie privée.





20

11

.

20

16

- Enjeu Qualité de la langue : il répond à l'objectif de préserver et accroître la qualité de la langue, à l'écrit comme à l'oral et dans les différents domaines de l'usage public et privé.

- Enjeu Désir de langue / motivation : il constitue un enjeu transverse dans la mesure où il conditionne la réussite des enjeux précédents. L'objectif est ici de susciter le désir de langue et de rechercher l'adhésion de la société.

Par ailleurs, afin de mieux connaître l'évolution sociolinguistique concernant la langue basque, les travaux d'études et de recherches seront soutenus : entre autre, l'enquête sociolinguistique du Pays Basque, la définition d'indicateurs relatifs à la présence et à l'utilisation de la langue basque et l'échange d'informations sur ces données.

Enfin, Le Sous-Ministère de la Politique Linguistique et l'Office Public de la Langue Basque se tiendront régulièrement informés de toute initiative et projet en matière de politique linguistique concernant les deux parties, qu'ils s'inscrivent ou pas dans les domaines d'activités actuellement identifiées dans la présente convention.

#### **4.- Procédure de définition du partenariat : Annexe annuelle**

Cette convention constitue le cadre de référence pour le partenariat. Chaque année sera signée une annexe annuelle, composée de deux parties :

##### **4.1.- Les actions menées en partenariat entre le Gouvernement Basque et l'Office Public de la Langue Basque**

Chaque année, seront précisés dans l'Annexe les programmes d'action de partenariat et les modalités de mise en oeuvre de ceux-ci : les contributions de chaque partenaire, les moyens mis en oeuvre, la communication relative aux actions...

La proposition du programme d'actions sera à la charge du Comité de suivi technique (décrit en point 5.); cette proposition étant ensuite étudiée et décidée par le Comité de suivi politique.

##### **4.2.- Les subventions du Gouvernement Basque et de l'Office Public de la Langue Basque**

###### **4.2.1.- Le soutien aux opérateurs privés du Pays Basque de France**

Avec l'objectif de renforcer l'utilisation de la langue, l'Annexe précisera les modalités d'accompagnement financier d'acteurs linguistiques privés du Pays Basque de France.

Signature  
Ministère de la Culture

Signature  
Office Public  
de la Langue Basque



20

11

•

20

16

A cet effet, un fonds de coopération sera organisé, abondé par les contributions des deux partenaires et, conformément à la présente convention, dont la gestion sera de la responsabilité du Comité de suivi (cf. Point 5. de la convention). L'Annexe annuelle précisera les contributions de chacun des deux partenaires et les modalités de versement. Le Fonds de coopération sera géré en concertation.

Le Comité de suivi fixera chaque année les priorités, objectifs, actions, contributions financières et modalités de mise en oeuvre. De même, le Comité de suivi proposera chaque année les projets susceptibles d'être accompagnés, en s'appuyant sur les critères et objectifs définis dans la présente convention.

La gestion du fonds de coopération relèvera, principalement, de la responsabilité de l'Office Public de la Langue Basque qui en assurera chaque année l'organisation. Cependant, l'aide et la présence du Gouvernement Basque seront prévues à tous les niveaux de la mise en oeuvre de la démarche : examen des projets, jury, communication relative aux projets accompagnés, autres présentations ou conférence de presse liées à la démarche...

#### 4.2.2.- La diffusion de la production éditoriale en langue basque dans le réseau de lecture publique du Pays Basque de France

Un fonds de coopération sera créé afin d'encourager la diffusion de supports éditoriaux créés ou traduits en langue basque dans le réseau des bibliothèques du Pays Basque de France, ou auprès d'association œuvrant en faveur du livre et de la lecture en langue basque.

La gestion de ce fonds, abondé par les contributions des deux partenaires, est attribuée à l'Office Public de la Langue Basque. Ce dernier mobilisera le fonds de coopération via un dispositif d'aide à l'achat de supports éditoriaux en langue basque destiné aux bénéficiaires cités ci-avant. En plus de bénéficier d'une information précise relative au dispositif, le Sous-Ministère de la Politique Linguistique pourra faire des propositions de modification qui lui sembleront nécessaires.

L'Office Public de la Langue Basque organisera un service de conseil destiné aux bénéficiaires de l'aide à l'achat.

Sans mettre en doute la nécessité d'un dispositif aux modalités techniques particulières, l'Office Public de la Langue Basque veillera au respect des principes suivants, tant dans la procédure d'attribution des aides financières que dans le conseil proposé aux bénéficiaires : transparence, équité, objectivité, concurrence et non discrimination.

### 5.- **Durée de la convention et modalités de suivi**

La convention est signée pour la période 2011 à 2016. En 2016, si les deux parties le décident, la convention sera reconduite.

Signature  
Ministère de la Culture

Signature  
Office Public  
de la Langue Basque



20

11

•

20

16

Afin d'assurer le suivi et la mise en oeuvre des orientations fixées par cette convention, un Comité de suivi sera créé entre le Sous-Ministère de la Politique Linguistique du Gouvernement Basque et l'Office Public de la Langue Basque.

Le Comité de suivi s'établira à deux niveaux :

- D'une part, un Comité de pilotage à vocation stratégique composé pour le Gouvernement Basque de la Ministre de la Culture, de la Vice-Ministre de la Politique Linguistique, de la directrice de la Promotion de la Langue Basque, de la directrice de la Coordination du Sous-Ministère de la Politique Linguistique et de la conseillère en Politique Linguistique, et pour l'Office Public de la Langue Basque du Président, des deux Vice-Présidents, du Sous-Préfet de Bayonne et de la directrice de l'Office.
- D'autre part, un Comité technique composé des techniciens de chacune des institutions sous la responsabilité de la directrice de l'Office Public de la Langue Basque et de la directrice de la Promotion de la Langue Basque du Gouvernement Basque.

Le travail de secrétariat du Comité de suivi sera effectué par la directrice de l'Office Public de la Langue Basque et par la directrice de la Promotion de la Langue Basque du Gouvernement Basque, assistées par les équipes techniques de chacune des institutions.

Le Comité de niveau politique se réunira au minimum une fois l'an, pour effectuer le suivi de la convention, et plus particulièrement pour examiner le bilan de la mise en oeuvre de la convention pour l'année écoulée et valider la proposition des projets pour l'année en cours.

Le Comité technique, quant à lui, se réunira chaque fois que nécessaire.

Signature  
**Ministère de la Culture**

## **6.- Autres obligations**

Concernant la Communauté Autonome Basque :

La mise en oeuvre de la présente convention devra respecter le règlement relatif à l'attribution des aides tel que décrit dans le VI. Titre du Décret législatif 1/1997, du 11 Novembre, ainsi que les obligations décrites dans l'article 50.2. Toutes les informations nécessaires seront transmises au Bureau de Contrôle Economique des Finances et de l'Administration Publique et au Tribunal des Comptes Publics du Pays Basque

Signature  
**Office Public  
de la Langue Basque**

Concernant les institutions françaises :

La mise en oeuvre devra respecter le décret 91.1215 du 28 novembre 1991 relatif aux groupements d'intérêt public constitués pour exercer des activités dans le domaine de la culture et respecter les règles de comptabilité publique en vigueur.



20  
11  
•  
20  
16

Les contentieux éventuels que pourrait soulever la mise en oeuvre de la convention seront jugés par le Tribunal Supérieur de Justice de la Communauté Autonome d'Euskadi et par le Tribunal Administratif de Pau selon les cas.

Afin de formaliser ce qui a été convenu et de l'appliquer comme prévu, les deux parties signent cette convention à Bayonne, en basque et en français,

A Bayonne, **le xx janvier 2011.**

**Blanca Urgell**  
Ministre de la Culture  
du Gouvernement Basque

Signature

**Max Brisson**  
Président  
de l'Office Public de la Langue Basque

Signature



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Euskararen  
erakunde  
publikoa

Office public de  
la langue basque

EUSKO JAURLARITZAREN KULTURA SAILAREN  
HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDEZAREN  
ETA EUSKARAREN ERAKUNDE PUBLIKOAREN ARTEAN  
HIZKUNTZA POLITIKAKO GAIETAN  
**LANKIDETZAN JARDUTEKO HITZARMENA**

-

**2011. URTEKO ERANSKINA**

2011

**Bildurik**

Izenpedura  
Kultura Saila

Batetik,

Eusko Jaurlaritzaren Kultura sailburua, **Blanca Urgell** andrea, 2010eko abenduaren **XXko** Gobernu Kontseiluak emandako ahalmenak erabiliz,

Eta

Izenpedura  
Euskararen  
Erakunde Publikoa

Bestetik,

Euskararen Erakunde Publikoaren lehendakaria, **Max Brisson** jauna, 2010eko abenduaren 21eko Administrazio Kontseiluak emandako ahalmenak erabiliz,

Honako hau,



2011

## Adierazten dute

Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Batzordeak, 2010eko abenduaren XXko bileran, Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren eta Euskararen Erakunde Publikoaren artean euskararen gaineko hizkuntza politikako gaitan mugaz gaindiko lankidetzaren garatzeko hitzarmen-markoa izenpetzea onartu zuen.

Era berean, Euskararen Erakunde Publikoaren Administrazio Kontseiluak, 2010eko abenduaren 21eko bileran, hitzarmen-marko hori izenpetzea onartu zuen.

Horrela, 2011ko urtarrilaren 31an Baionan erakunde bien arteko lankidetzaren hitzarmena sinatu zen.

2007-2010 hitzarmenaren jarraian, 2011-2016 epealdirako indarraldia duen hitzarmen horren xedea da Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren eta Euskararen Erakunde Publikoaren artean euskararen gaineko hizkuntza politikako gaitan mugaz gaindiko lankidetzaren garatzearen aldeko borondatea berrestea eta erakunde mailako harreman iraunkorrak egonkortzea eta garatzen jarraitzea, herri-erakunde bakoitzaren erabaki-autonomia eta funtzionamendu-arauak errespetatuta.

Elkarlana zehazteko prozedurari dagokionez, hitzarmenaren laugarren atalean adierazten da urtero eranskin baten bitartez elkarlanean garatuko diren egitasmoak zehaztuko direla. Horrekin batera, eta euskararen erabilera areagotzeko xedez, Ipar Euskal Herriko hainbat eragile pribaturen lana finantzatzeko moduaren gaineko zehaztasunak ere, urteko eranskinean jasoko direla zehazten da.

Hori horrela, eranskin honek 2011. urterako egitekoak zehazten ditu.

Izenpedura  
Kultura Saila

Izenpedura  
Euskararen  
Erakunde Publikoa



## Estipulazioak

### 1.- Hitzarmen eranskinaren helburua

Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren eta Euskararen Erakunde Publikoaren artean euskararen gaineko hizkuntza politikako gaitan mugaz gaindiko lankidetzara garatzeko onartutako hitzarmen-markoari jarraikiz, hitzarmen eranskin honen helburua da 2011. urtean bi erakundeek elkarlanean garatuko dituzten egitasmoak zehaztea eta Ipar Euskal Herrian euskararen transmisioa eta erabilpena areagotzeko sustapen-lerroak ere finkatzea.

### 2.- Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eta Euskararen Erakunde Publikoak 2011. urtean elkarlanean garatuko dituzten ekimenak

#### 2.1.- Helduen euskalduntze-alfabetatzearen esparruan, hizkuntza-gaitasunaren mugaz bi aldeetako egiaztagirien baliokidetzaren definitze eta antolaketa

2009an, Paue eta Aturri aldeko herrialdeetako Unibertsitateak, Michel de Montaigne Bordele 3 Unibertsitateak eta Euskararen Erakunde Publikoak Europako Erreferentzia Markoa Bateratuan oinarritzen den euskara gaitasuna egiaztatzeko dispositibo bat sortu ondoren, 2008. urtea arte Euskaltzaindiak antolatzen zuen Euskara Gaitasun Agiria (EGA) azterketaren segida hartu du Euskararen Erakunde Publikoak, Euskaltzaindiaren babesarekin, C1 mailako azterketa antolatuz 2009 eta 2010 urteetan.

2011n ere, C1 mailako euskara gaitasunaren egiaztatzeko azterketa antolatuko da. Gainerateko mailak ondoko urteetan martxan jarriko dira, urratsez urrats.

Izenpedura  
Kultura Saila

Izenpedura  
Euskararen  
Erakunde Publikoa



Hainbat tresna eta prozedura jadanik eratuak izan baitira Euskal Autonomia Erkidegoan euskararen egiaztatze eremuan, 2008tik abiatu lankidetzari jarraikiz, 2010ean hein bereko egiaztagirien baliokidetzara prozedura abiatu da eta Euskal Autonomia Erkidegoko dispositiboa eta Iparraldean plantan jartzen ari den dispositiboaren arteko hartu eman eta junten zehazten hasi da.

2011n euskara gaitasunaren egiaztatzeko dispositiboari dagokionez, ondoko urratsak emanen dira :

- Heine bereko egiaztagirien baliokidetzara prozedura publiko egitea.
- Euskal Autonomia Erkidegoko dispositiboa eta Iparraldean plantan jartzen ari den dispositiboaren arteko hartu eman eta junten zehazten jarraitzea.

## 2.2.- Jarraipen eta ebaluaketa adierazle komunen definitze eta antolaketa

Euskararen egoera eta bilakaera ezagutzeko asmoz, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza Euskal Herriko hizkuntza-adierazleen sistema (EAS) lantzen eta eguneratzen ari da. Bertan, euskarari buruzko diagnostia eta bilakaeraren jarraipena egin ahal izateko oinarriko aldagaiak bildu eta antolatzen dira.

Iparralderako Hizkuntza Politika Proiektua landu zuelarik 2006. urtean, Euskararen Erakunde Publikoak hizkuntza-adierazle batzuk finkatu zituen, euskararen egoera jarraitzeko eta ebaluatzeko xedez, eta Hizkuntza Politika Proiektuaren gauzatzearen ondorioak neurtzeko gisan. Geroztik, Euskararen Erakunde Publikoa adierazle sistema honen osatzeko datuak biltzen eta jarraitzen hasi da, besteak beste ondoko sailetan :

- Biztanleriari dagozkion adierazleak :
  - Biztanleen kopurua herri, adin eta sexuen arabera, eta, 1990. eta 1999. urteetako jende kondaketak, eta 2004tik goiti urtero antolatuak diren jende kondaketak abiapunduzat hartuz, biztanleriaren bilakaera.
  - Migrazio-mugimenduen bilakaera herri, adin eta sexuen arabera, eta jatorrizko eta helmuga tokien azterketa.
- Irakaskuntzari dagozkion adierazleak : Irakasleen kopurua lurraldearen arabera, irakaskuntza sarearen arabera (publikoa, giristinoa, Seaska) eta modelo pedagogikoen arabera (irakaskuntza elebiduna, murgiltze sistema).

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak garatzen duen EAS sistema eta Euskararen Erakunde Publikoak biltzen eta jarraitzen dituen datuak kontutan harturik, bi erakundeek 2011an arlo horretan elkarlanean emango duten lana honakoa izango da :

- Komunak diren adierazleak identifikatu,
- Osatu behar direnak zehaztu,
- Beharrezkoak diren egokitzapenak egin,
- Informazioa elkar trukatzeko prozedura gogoetatu.





## 2.3.- HPSren, EEPren eta EITBren arteko lankidetzak

### 2.3.1.- EITB eta EEP arteko hitzarmenaren gauzatzen laguntzea

2009ko maiatzaren 27an, EITB euskal irrati telebista publikoak eta EEPk lankidetzak hitzarmen bat izenpetzen zuten, Eusko Jaurlaritzaren presentziarekin eta babespean, ondoko helburuarekin : aterabide batzuk bilatzea eta obratzea, alde batetik molde numerikoan hedatzeko gaur egun molde analogikoan Ipar Euskal Herrian hedatuak diren EITB taldearen irrati telebista zerbitzuak, eta bestetik 2008ko urriaz geroz molde numerikoan hedatua den ETB3 telebista kate berria lurralde berean hedatzeko.

Geroztik, bi sinatzaileak xede horrekin lan egiten hasiak dira, lehentasunez ETB1 eta ETB3 euskarazko telebisten hedapen numerikoa Ipar Euskal Herrian prestatzeko urratsak abiatuz, ikusiz gaurko ETB1 telebistaren hedapen analogikoa 2011ko martxoaren hondarrean itzaltzekoa dela. Mugaz gaindiko hedapena izanki, urrats garrantzitsu bat lortu da dagoeneko, frekuentzia baimenen emateaz arduratzen den CSA erakundeak Frantziako Gubernuburuari eskatu baitio Frantzia eta Espainia Estatuaren arteko akordio bat negoziatzeko desmartxa bat abia dezan.

2011. urtean, nazio arteko akordio horren lortzea errazteko kolaboratuko dute EEPk eta EJK, horrela, EEPk EITBekin sail horretan eramaten duen funtsezko lana ahal bezainbat lagunduz.

### 2.3.2.- Iparraldean euskararen aldeko sentiberatasuna hedatzea

Kontuan hartuz alde batetik euskararen aldeko sentiberatasuna hedatzeko telebistak daukan garrantziaz, eta bestetik Euskal Irrati-Telebistak, EITB sortzeko 5/10982 Legearen 3. artikuluan aurreikusitako printzipioei jarraituz, kulturaren eta euskararen sustapena oinarri harturik, bere programazioaren bitartez betetzen duen funtzioaz gain, ahalegin berezia egin nahi duela Iparraldeko bere emisioetan mezu berezia zabalduz, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eta Euskararen Erakunde Publikoak EITBekin lankidetzan ariko dira Iparraldean euskararen aldeko sentiberatasuna hedatzeko xedez.

Horrela, 2011. urtean Iparraldean euskararen sustapenari eta erabilerari buruzko publizitate kanpaina egingo da, euskararen erabileraren aldeko mezua zabalduz, eta, bereziki, euskararen transmisioa familia bitartez eta belaunez belaunezkoaren garrantzia azpimarratuz.

Kanpainaren euskarriren zabalkundea egiteko, Iparraldean jasotzen diren EITBren hedabideak (ETB1, ETB2, ETBSAT, ETB3, Euskadi Irratia eta Euskadi gaztea) erabiliko dira.



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Euskararen  
erakunde  
publikoa

Office public de  
la langue basque

2011. urtean, Kanpaina diseinatzeko, produzitzeko eta zabaltzeko, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak 10.000 € jarriko ditu. EEPk bere aldetik 2.000 € jarriko ditu.

#### 2.4.- V. inkesta soziolinguistikoaren prestaketa lanen abiatzea

Inkesta soziolinguistikoaren helburu nagusia da Euskal Herriko egoera soziolinguistikoa aztertzea eta horretarako hizkuntza-gaitasuna, euskararen erabilera eta horiek sustatzearen aldeko jarrerak nolakoak diren eta horien bilakaera nolakoak izaten ari den ezagutzea.

Bost urtetarik, 1991z geroztik, Eusko Jaurlaritzak inkesta soziolinguistikoa antolatzen du euskara baliatua den hiru lurraldetan : Euskal Autonomia Erkidegoa, Nafarroa eta Ipar Euskal Herrian. Azkena, 2006. urtean iragan denez, ondoko inkesta 2011n egingo da.

2006ko IV. inkesta soziolinguistikoa lankidetzan eramane zuten Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako eta Euskararen Erakunde Publikoko zerbitzuek hainbat urratsetan : laginaren definitzea eta osaketa, Ipar Euskal Herriko landa-lanen antolaketa eta eramatea, datuen irakurketa, itzulpen lanak, argitalpenaren zabalkundea.

Era berean, 2011ko inkesta soziolinguistikoa lankidetzan eramango dute Eusko Jaurlaritzak eta Euskararen Erakunde Publikoak.

Bi urtez iraganen dira inkesta horri lotu lanak : 2011. urtean inkesta bera eginen da eta datuen azterketa, ondoko urtean txostenak idatziko dira eta argitaratuko.

Zehazkiago, bi partaideek 2011n ondoko lanak eramane dituzte nagusiki :

- Galdetegiaren prestaketa ;
- Laginaren definitzea eta osaketa ;
- Landa-lanen antolaketa eta eramatea ;
- Datuen esplotazioa.

#### 2.5.- Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren eta Euskararen Erakunde Publikoaren zerbitzuen artean informazioa trukatzea

Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren eta Euskararen Erakunde Publikoaren zerbitzuek partaidetza tekniko batzuk egituratzen hasiak dira 2010. urtean ekoizpen eta baieztapen linguistikoei dagokienez, bereziki terminologia eta toponimia sailetan.

2011

Izenpedura  
Kultura Saila

Izenpedura  
Euskararen  
Erakunde Publikoa



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Euskararen  
erakunde  
publikoa

Office public de  
la langue basque

2011

Euskararen Erakunde Publikoak ikerketa bat du 2010. urtean, ikertzeko zer nolako dispositiboa plantan jarri behar litekeen, ondoko bi helburu nagusiak betetzeko gisan :

- Gaur egun Ipar Euskal Herrian euskaraz ekoizten duten profesionalen lana erraztea (hizkuntza teknikariak, hedabideetako profesionalak, irakasleak...), araberako tresnak eta hizkuntza baliabideak antolatuz eta/edo eskainiz,
- Euskarazko ekoizpen lanen baieztapen linguistikoak segurtatzea.

Horren barnean, eta hainbat tresna eta prozedura jadanik eratuak izan baitira Euskal Autonomia Erkidegoan, 2010. urtean, Euskal Autonomia Erkidegoak eratu tresnen begiztatze eta aztertze lana abiatu du Euskararen Erakunde Publikoak.

2011n, Euskal Autonomia Erkidegoko tresnen aztertze lana jarraituko du Euskararen Erakunde Publikoak, eta Iparraldeak beharrezkoak dituen tresnak lantzen hasiko da. Aldi berean, Euskal Autonomia Erkidegoko tresnen eta Iparraldean plantan jarri beharreko dispositiboaren arteko hartu eman eta juntak aztertzen eta finkatzen hasiko dira.

### **3.- Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren eta Euskararen Erakunde Publikoaren sustapen-lerroak Ipar Euskal Herriko eragileei dagokienez**

#### 3.1.- Iparraldeko eragile pribatuen lana diruz laguntzea

Izenpedura  
Kultura Saila

Euskararen transmisioa eta erabilera areagotzeko xedez, Ipar Euskal Herriko hainbat eragile pribatuen lana finantzatzeko moduaren gaineko zehaztasunak jasotzen dira eranskin honetan.

2011. urtean proiektuak finantzatzeko, alde bien arteko ekarpenez hornitu lankidetzarako fondo bat berriz ere zutik jarriko da. Honen xedea, beraz, Ipar Euskal Herrian euskararen erabilera sustatzeko ekimenak garatzen dituzten erakunde pribatuentzat diru-laguntzak emateko modua arautzea da.

Izenpedura  
Euskararen  
Erakunde Publikoa

Diruztatuak izanen diren ekimenak 2011. urtean hasi edota gauzatu beharko dira eta indarrean dagoen legediaren arabera eraturiko eta dagokion erroldan inskribaturiko Ipar Euskal Herriko pertsona juridiko pribatuek eskatu eta eskura ditzakete agindu honetako diru-laguntzak.



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Euskararen  
erakunde  
publikoa

Office public de  
la langue basque

2011

Horretarako, lankidetzarako fondoak eratu da, alde bien ekarpenez. Guztira, **1.600.000 €**ko gehieneko zenbatekoa jarri da era honetan :

- Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak : **470.000 €**.
- Euskararen Erakunde Publikoak : **1.130.000 €**.

Bi partaideek hornitu lankidetzarako fondo hori, bi multzotan banatuko da :

- Lehen multzoa : bi partaideen arteko sustapen-lerroekin bete betean datozela ikusita, Ipar Euskal Herriko elkarte-eragile jakin batzuk, 2011. urterako balio izanen duen hitzarmen baten berme diruztatuko dira. Orohar, elkarte-eragile jakinen diruztatzeko, **1.200.000 €**ko gehieneko zenbatekoa jarriko da.
- Bigarren multzoa : Ipar Euskal Herriko beste hainbat eragile pribatuei zuzenduko den hizkuntza jarduerarako Proiektu Deialdia irekiko da. Orohar, beste eragile pribatuen diruztatzeko, **400.000 €**ko gehieneko zenbatekoa jarriko da.

Hitzarmenean adostu bezala, Jarraipenerako Batzordeak, hitzarmen-markoan zehaztutakoak, lankidetzarako fondoak koordinatuko du eta lehentasunak, helburuak, aurrekontuak eta erabiltzeko arauak proposatuko ditu. Halaber, Batzordeak egitasmoen azterketa teknikoa eramango du, beti ere eranskinean ezarritako irizpideekin eta helburuekin bat etorritik.

Lankidetzarako fondoaren kudeaketa, eragile identifikatuen jarraipenari eta hizkuntza jarduerarako Proiektu Deialdiaren kudeaketari dagokienez, nagusiki, Euskararen Erakunde Publikoaren esku izango da. Horrela, Euskararen Erakunde Publikoak lehiaketa publikorako deia egingo du. Prozesu horretan Eusko Jaurlaritzaren laguntza eta presentzia arlo guztietan bermatuko da : egitasmoen balorazioa egiterakoan, erabakietan, laguntzen diren egitasmoen zabalkundeetan...

Euskararen Erakunde Publikoak eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak elkarrekin aurkeztuko dituzte, interesatuen eta hedabideen aurrean, lankidetzarako fondoaren kariatara sustatu ekimenak.

